

TXISTUA

EUSKALDUNA?

Xulubita, zirula, txilibitu ta xulula izenakaz ezagutua izan da orain txistu izenagaz Euskalerrian ezagutzen dogun an, eta Euskalerrikoak orain diran edo kondaran zear izan diran eskualdeetan agertzen da, Jaka'n esaterako.

Noztik erabilli dabe euskaldunak euren dantzetan tun-tunagaz batera jotan dan xurula ori?

Antxiñako gizarte nagusietan, Asi eta Grezia'n esaterako, xurula arteza eta teknika-arauz euskaldunen txistua lakoa erabiltzen eben, baiña eraztunen neurritz eta beste zearzetasun batzutan ezbar-diña zan.

* * *

ANTZEKOENAK

Ori olan dala, euskal txistuaren lentasuna aundia da.

Asiria'ko langarren eta bostgarren errege-jatorrien (dinastien) arri (bajo-relieve), 2.700'garren urte-ingurua Kristo'ren aurretik, agertzen dira gure txistuaren antzekoenak.

Egipto'ko illerrietan aurkitu diran berrogei ta bost xurula dagoz gordeta Londres eta Florentzia'ko erakurtetxe edo museoetan.

Baiña ba-daukagu beste balio aundiko argibide bat, txistua gizadiko edozein xurula ta soiñu-ereskin baiño lenagokoa dala adierazteko.

* * *

BILLAKETEA

Strasburg'eko Unibersidadean jakintzalari eta arkeologorik gurena dan Passermard'ek • egin eban billa gogoratzen dogu.

Errobi'ren inguruan, Napar-Au-iiamendi'ko arakatzeak egiten egoala,



Euzkadi'ko billaketarik aundienara jo eban. Amabi km. ego-sortalderantz, Isturitz izeneko erritxuan, Naparroa'ko seigarren lurraldean (Benabarra'n) izan zan. Arri-aroko leiza bat dago bertan eta berrogei ta hamar metro lurpera sartuta.

Asaba zarren erti-trebetasuna goraltzen daben azur langintza asko aurkitu ebazan an, eta onein artean egazti-azur lodi bat aurkitu eban Passermard Irakasleak: Alde baten iru zulo eukazan bata besteagandik urrinduta eta, billatzaillearen ustez, soiñua aterateko egokituak.

Zori txarrez, gorengo zuloa apurtuta dago eta zatia ez da agertu.

Orregaitik ezin jakin soiñu orren tankerea. Dana dala, arkeologo zoriotsu onen eritxiz, gizadiko soiñu-ereskin edo soiñogailurik antxi dogu, iru zulozko xurula arteza edo Isturiz leizako txistua.

*

ANTXIÑAKO TXISTULARIAK

Napar-ibarreko «Santa Maria de la Oliva» lekaidetxean, XII mendeko eleiz egikera erromaniku eder bat ikusten dogu.

An arrizko irudi txiki baten musikalariak euren ereskiñak jotzen dabiltz eta gizontxu batek ezkerreko eskuan xurula artez txiki eta es daukola jotzen dan.

Txistuaren kondairarako, arri landu onetako txistularia garrantzi aundikoa da.

Iruña'n, San Zernin'en eleizan, aingeru txistulari antzekoak ei dagoz. Zernin deunaren eleizako ate-aurre ikusgarrian, antxiñako arri apaintzen dauan aingeru bikotea dakusgu ate nagusiaren esku bat laud antzeko ereskin bat jotzen dago eta besteak xurula arteza esku ezkerreagaz eutsita jotzen dan. Tamalez, ezin esan geinke zaur aingeru ziruladun ori txistularia dan, tun-tunik be ez dauka ta. Zori txarreko ebaketa basati batek esku eskoia kendu eutson eta ez dakigu esku orregaz tun-luna jotzen eban ala ez.

Iruña'ko eleiza nagusian, katedralean, iru txistulari agiri dira: Xurula artezagaz eta tun-tun eta guzti.

Orretaz gainera, turulari bik erdian dabela, txistulari batek errege-etzkontza alaitzen dan zirula-soiñuan eta tuntuana zartatzeaz.

Euzkadi'ko eres-ertiaren lenengo agerpenak dira oneik.

LETONA'K